


Ihesi

GORKA AZKARATE

Euskal Herria ezagutuz:
Erretereria (Gipuzkoa)



Añarbeko erreserba Oarsoaldeko naturaren azken muga

Erreserba izendatuko dituzte Aiako Harria parke naturalean dagoen Añarbeko basoaren 1.700 hektareatik 800. Pagadi eremu zabalek osatzen dute Añarbe, baita Gipuzkoan diren harizti handienek ere. Añarbe klimaren erregulatzaileria da, eta ura eta biodibertsitatea eskaintzen dizkigu. Orain dela bost urte Bruselak Natura 2000 Sarean sartu zuen. Ezagutu nahi?

DAGOENeko hiru Erreserba Eremu ditu Aiako Harria Parke Naturalak (Endara eta Enbido Irunen, eta Txurumuru-Txikia Oartzunen); orain, laugarrena izateko bidean da Añarbe, Erretereria herri-partaidetzatik sortutako erabaki batek bultzatuta.

Añarbe interes biologiko handiko animalia basatien habitata da: basakatu, katajineta, erbinudea,

azkonarra, katagorria, muxar grisa, orkatza, basurdea, okil beltza, okil handia, hontz ertaina, urubia, izokin arrunta, kukulamera... Desagertzeko arriskuan dauden animalia zein landare espezieak ugaltu, babestu eta elikatu egiten dira Añarben. Baso natural helduak eta egundoko baso eremu trinkoak aurkituko dituzu han, naturaltasun handiko paisaiak beti ere.

Uraren balio estrategikoa

Añarbeko basoa izen bereko urtegiaren gainaldean dago, zein Arantza, Goizueta, Oartzun eta Erretereria errekak isurtzen diren. Donostialdeak, Gipuzkoako populazioaren erdiak baino gehiagok –300.000 biztanle inguruk–, Añarbeko ura edaten du. Horregatik esan daiteke biodibertsitatea zaintzea kalite



FRANCISCO JAVIER BELTRAN DE HEREDIA



Mapa honetan ikus daitezke Añarbeko basoaren kokapena Aiako Harria Parke Naturalaren barruan. Goiko eskuineko argazkian, Añarbeko urtegia; gipuzkoarren erdiak baino gehiagok edaten du bertako ura. Behean ezkerrean, bisoi europarra.



JORGE GONZALEZ FRANCISCO BELTRAN DE HEREDIA

tate oneko ura izateko aukera bermatzea dela.

Azken gotorlekuetakoa

Añarbek bat egiten du Euskal Herriko isurialde atlantikoko korridore ekologikoan dauden eta biodibertsitatearen kontserbaziorako estrategikoak diren hosto erorkorreko hainbat basorekin: Endara, Artikutza, Bertiz, Irati... Azken batean, Añarbe Gipuzkoa ekialdeko mendi-biodibertsitatearen azken mugetako bat da gaur egun; izan ere, garraiorako azpiegitura linealek, hirigintza eta industria garapenak eta zur exotikoen hazkuntzarako baso jarduera intentsiboak, hein handi batean artifizial bihurtu dute gipuzkoar lurraldea.

LIFE-Natura Proiektua

Aiako Harria Garrantzi Komunitario-ko Lekua Kontserbatzea eta Berreskuratzea izeneko LIFE-Natura Proiektua (2005-2009) Gipuzkoako Foru Aldundiak koordinatzen du, Aiako Harria Parke Naturaleko basoen jabe nagusiekin batera (Irun, Oiartzun, Hernani eta Errenteriako udalak), Eusko Jaurlaritzak eta bi fundazio pribatuk ere (Naturgintza eta Basoa) parte hartzen dutelarik. Natura 2000 Sarean dauden natur habitaten –baso nahiz erreka– eta hainbat espeziearen kontserbazio egokia berreskuratzea da helburua.

Nola iritsi

Astigarraga eta Oiartzun arteko errepidean, Errenteriako Bentako

bidegurutzean, jo Listorretako atsedengunerantz. Bertara iritsita-koan, Idoia etxeraino (Susperregi jatetxea) jarraitu eta ibilgailua parkingean utzi. Handik, abiatu oinez, langa bat zeharkatuta, Malbazarko leporaino. Beherantz doan basopista nagusia Añarbeko basora eta urtegiara doa.

Udan, Listorretako atsedengunean, Aiako Harriko Parke Naturalari buruzko Informazio Bulegoa irekitzen du Errenteriako Udalak, ostegunetik igandera goizeko 10etatik arratsaldeko ordu biak arte. ■

Informazio gehiago Interneten:

- www.errenteria.net
- www.oarsoaldeaturismo.net
- www.lifeaiakoharria.net

LISTORRETAko atsedengunea

antolaketa berria udaran
*larunbata, igande eta jaiegunetan

Autobus-zerbitzu publikoa

- ▶ Errenteriako erdigunetik abiatuta
- ▶ Ekainaren 3tik urriaren 1era, biak barne
- ▶ Larunbatetan: orduro / Igande eta jaiegunetan: ordu-erdiro

GELTOKIA	JOANALDIA	ITZULERA
Xenpelar (Kutxa)	9:00-13:00 / 17:00-20:00	10:00-13:00 / 18:00-21:00
San Marko (Aldakoenea)	9:04-13:04 / 17:04-20:04	9:56-12:56 / 17:56-20:56
Beraun, 15	9:08-13:08 / 17:08-20:08	9:52-12:52 / 17:52-20:52
Masti-Loidi (Isatse)	9:10-13:10 / 17:10-20:10	9:50-12:50 / 17:50-20:50
Zamalbide	9:15-13:15 / 17:15-20:15	9:45-12:45 / 17:45-20:45
Listorreta	9:30-13:30 / 17:30-20:30	9:30-12:30 / 17:30-20:30

